

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



ENPRESAREN EKONOMIA USE2021

www.ehu.eus





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALAUAZIOA

2021eko EZOHIOA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

**Azterketa honek bederatzi galdera ditu (zortzi 2 puntukoak eta bat 4 puntukoak).
Erantzuteko, bi aukera dituzu:**

- **bi puntuko bost galderari erantzutea**

- **bi puntuko hiru galderari eta lau puntukoari erantzutea**

**Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero,
erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko
kopurura iritsi arte.**

Ez ahaztu azterketa-orrialde bakoitzean kodea jartzea.

1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Irakurri testua, eta erantzun galderei:

LAUDO BATEK 1,8 MILIOI GEHIAGO ORDAINTZERA BEHARTZEN DU ALHONDIGA-REN LANENGATIK

Bilboko Udalak bere **aurrekontu**-proiektua aurkeztu berria du 2013rako, eta jada lehen ustekabekoari aurre egin behar izan dio. 1,8 milioi euro gehiago ordaindu behar izango ditu Alhondigako lanengatik—jada itxiztat jotzen zuen gaia—, sozietate kudeatzailearen **kapital-zabalkuntza** baten bitartez. Hala ezartzen du **laudoak**, lanen zuzendaritzaren eta kontratu nagusien adjudikaziodunaren arteko bi urteko gatazkaren ondoren.

Azkenik arbitrajera jo behar izan zen, eta prozesuaren erabakiak era nabarmenean handitzen du 2013ko aurrekonturako aurreikuspenen ekarpena.

Igeltserotzako eta instalazioetako kontratuen eta akaberen ardura zuen ABEEak (**aldi baterako enpresa-elkartea**) kexa aurkeztu zuen lanak bukatu zituenean, ulertzen baitzuen kitapenaren zenbatekoak ez zuela estaltzen egindako lana.

Nahiz eta berri hori txarra izan, **autofinantzaketa**-maila handitzen ari da kirol-jardueraren, operadoreen eta babesleen diru-sarrerengatik.

Galderak:

- a) Definitu eta azaldu testuan azpimarratutako hitzak.
- b) Azaldu ezazu zer den efektu-deskontu bat eta zergatik den finantzaketa mota bat.

2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

EURIA KOOP. enpresak Malaysian erosten dituen euritakoak merkaturatzen ditu. Euritako bakoitza 15 euroan erosten du. Une honetan, euritakoak bere instalazioetan ekoiztea planteatzen ari da, eta, horretarako, zer kostu izango lituzkeen aztertu du:



- * Lantegian egin beharreko inbertsioa: 50.000 euro
- * Langile berrien soldatak: 42.000 euro
- * Euritako bakoitza egiteko kostuak: oihala 3,5 €/u; hagaxkak 1 €/u; makila 0,80 €/u; kirtena 0,50 €/u; besteak 1,20 €/u.

Kalkula ezazu:

- a) Zenbat euritako ekoitzi beharko luke enpresak kanpoan erostea baino erabaki egokiagoa izateko?
- b) Egin adierazpen grafikoa.
- c) 12.000 unitate behar izanez gero, zein da erabaki egokiena? Frogatu erantzuna aukera bakoitzaren kostuak kalkulatu.
- d) 10.000 unitate beharko balitu, gehienez zer erosketa-prezio ordaintzeko prest egongo litzateke (kanpoan erosiz gero)?

3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

RALLYSPRINT SA enpresak automobil-fabrikatzaile handi batentzako gasolina-deposituak egiten ditu.

Hornitzaile bati tapoiak erosten dizkio, deposituak itxi ahal izateko. Enpresak 27.000 tapoi erabiltzen edo kontsumitzen ditu, batez beste, bi hilean behin. Eskaeraren bolumen onena hilabeteko kontsumoari dagokio, eta entregatzeko epea bost egunekoa da.

Enpresak 1.500 tapoiko segurtasun-stocka erabiltzen du ezustekoei aurre egiteko.

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- a) Eskaera-puntua.
- b) Batez besteko stock-maila.
- c) Errotazio-indizea.
- d) Adierazi egoera grafikoki.
- e) Bigarren eskaera egiten bada eta aurreikusitakoa baino lau egun geroago jasotzen bada, izango al da stock-hausturarik? Azaldu atzerapen horren ondorioak.

4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

Enpresa bat hiru inbertsio-proiektu aztertzen ari da, interesgarriena martxan jartzeko, eta hiru proiektu horien datuak lauki honetan ageri dira:

Inbertsio-egitasmoa	Hasierako inbertsioa	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Alpha	10.000	0	0	6.000	6.000	8.000
Beta	20.000	3.000	4.000	5.000	6.000	8.000
Gamma	16.000	4.000	5.000	8.000	3.000	3.000

Kontuan hartuta inflazio-tasa % 3 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa % 2 dela:



Kalkula ezazu

- Zein inbertsio aukeratu beharko luke berreskuratze-epearen irizpidea (Pay Back irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna.
- Eta zein inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren irizpidea (BEG irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna.
- Bi irizpideetatik (BEG edo Pay Back), zein da egokiena? Zergatik?

5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

SALIKA kontserba-enpresak behean agertzen diren diru-sarrera eta gastuak izan ditu ekitaldi ekonomiko batean:

- Salgaien salmenta: 95.000 €
- Salgaien erosketa: 38.000 €
- Soldatak eta lansariak: 2.500 €
- Finantza-gastuak: 2.500 €
- Finantza-sarrerak: 1.200 €
- Lokal baten salmenta: 10.000 €

Kalkula ezazu:

- Enpresaren emaitza (zergak baino lehen)
- Ordaindu beharreko zerga (sozietateen gaineko zerga: % 30)
- Ekitaldiaren emaitza garbia (zergen ondoren)

6. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

EZTALI enpresa euritakoan oihalak josten aritzen da. Urtean, 50.000 e-ko balioa duten oihalak erosi eta kontsumitzen ditu. Batez beste biltegian gordeta izaten duen oihal kantitateak 9.000 € balio du. Fabrikazio bidean dauden euritakoan batz besteko stocka 12.000 €-koa da, eta produktu bukatuena 6.000 €-koa da. Urteko produkzioaren kostua 290.000 €-koa da, eta hori % 90 garestiago saltzen zaie bezeroei. Oihal-hornitzaileekin duen batez besteko zorra 32.000 €-koa da, eta bezeroak EZTALIrekin duen batez besteko zorra 55.100 €-koa da. Enpresak urtean ekoizten duen guztia saltzen du. (Urtea = 365 egun.)

Kalkula ezazu:

- Batez besteko heltze-aro ekonomikoa. Azaldu emaitza.
- Batez besteko heltze-aro finantzarioa. Azaldu emaitza.

7. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

POLTSA enpresak oihalezko poltsak merkaturatzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu maiatzean biltegian:

05/02: Hasierako izakinak: 4.000 unitate, 4 €/unitatea.



- 05/09: Erosketak: Oihal Txiki enpresa hornitzaileari 4.000 unitate, 4,4 €/unitatea.
05/10: Erosketak: Oihal Txiki enpresa hornitzaileari 8.000 unitate, 4,6 €/unitatea.
05/13: Salmentak: Ekosuperri 5.000 unitate, 6 €/unitatea.
05/20: Erosketak: Oihalberri hornitzaileari 5.000 unitate, 5,6 €/unitatea.
05/30: Salmentak: Ekosuperri 7.000 unitate, 6 €/unitatea.

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoak erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa.

Hilaren bukaeran, maiatzaren 31n, biltegian gelditzen diren oihalezko poltsa guztiak salduz gero, unitateko 6 euroko prezioan, zein izango litzateke enpresaren mozkin metodo bakoitzarekin?

8. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

RICARLO SL enpresak euritakoak ekoitzi eta saltzen ditu. Haren ondare-elementuak hauek dira 2020. urtearen bukaeran:

1. Makinak: 4.000 €
2. Makinen erosketagatik 18 hilabete barru ordaindu beharrekoa: 2.000 €
3. Furgoneta: 40.000 €
4. Altzariak: 2.000 €
5. Bere jarduerarako lokala: 135.000 €
6. Biltegian dituen euritakoak: 7.000 €
7. Hornitzaileei ordaintzeko dituen fakturak: 13.000 €
8. Salmentagatik kobratzeko dituen fakturak: 11.000 €
9. Ordenagailua eta inprimagailua: 3.000 €
10. Bankuan daukan dirua: 22.000 €
11. Enpresako kutxan daukan dirua: 1.000 €
12. Ekitaldiko irabaziak: 15.000 €
13. Erreserbak: 6.500 €
14. Kreditu-erakunde bati 2 urte barru itzuli beharreko mailegua: 10.000 €
15. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 19.000 €
16. Ogasunari BEZagatik zor dio: 1.500 €
17. Gizarte Segurantzari zor dio: 1.800 €
18. Kapital soziala?

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko, irudikatzea eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Altxortegia.
 - Likidezia.
 - Zorpetzea.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIOA

ENPRESAREN EKONOMIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Finantza-autonomia.

9. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

Aurreko hiruhilekoan, LURUMBA SAK 48.000 €-ko balioa duten lehengaien erosketak egin ditu. Eraldatu eta gero, 165.000 €-an saldu du bere produktua. BEZaren zerga-tasa % 21 bada,

a) Kalkula ezazu hiruhileko horren BEZaren likidazioagatik Ogasunean sartu beharreko diru kopurua.

b) Nor da kasu honetan zergaren subjektu pasiboa? Enpresak lehengaien erosketetan jasaten duen BEZa gastua al da berarentzat? Azaldu zure erantzuna.

c) Azaldu BEZaren zer beste zerga-tipo dauden eta zein diren zerga horren ezaugarri nagusiak.

2021

BILTEGI-FITXA

BALORAZIO-IRIZPIDEA: ARTIKULUA:

DATA	DESKRIBAPENA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa	Kopurua	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:
UNITATE KOPURUA:



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

1)

a)

Aurrekontua: Planak eta programak urtebeteko epean egiten dituzten enpresek edo erakundeek egingo dituzten gastuen eta aurreikusitako diru-sarreraren zerrenda zehatza. Kasu honetan, Bilboko Udalaren aurrekontuari dagokio. Ogasun Publikoak dagokion urtean egingo dituen gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenen zerrenda zehatza.

Kapitala handitzea: Enpresaren funts propioak handitzen dituzten enpresa-finantzaketako eragiketak dira. Akzio berriak jaulkiz edo daudenen balio nominala handituz egin daiteke, edo enpresek lortzen dituzten etekinetatik datozen erreserben kargura. Kasu honetan ez du esaten, baina Bilboko Udalak egin behar duenez handitzea, ez da SA bat.

ABEE (aldi baterako enpresa-elkartea): sistema horren bidez, 2 enpresak edo gehiagok bat egiten dute obra bat egiteko edo zerbitzu jakin bat emateko: aldi baterako enpresa bakar gisa eratzen dira obrak irauten duen bitartean. Kasu honetan gremioak batzen dira Alhondigako lanak amaitu arte.

Autofinantzaketa: Autofinantzaketa edo barne-finantzaketa da enpresak bere jardueratik datozen baliabideak, erreserbak eta amortizazioak inbertsioak egiteko erabiltzea. Hau da, kanpoko funtsak alde batera uzten dira. Bestela esanda, autofinantzaketak esan nahi du ez dela banku-kreditu handiagorik eskatu behar, ezta akziodunen ekarpen gehiagorik ere. Itzuli behar ez diren enpresaren finantza-baliabideak dira, hala nola erreserbak eta amortizazioak. Kasu honetan, etekinen bidezko autofinantzaketa da.

LAUDO: Arbitrajean, arbitroek prozedura amaitzeko azken erabakia.

b)

Epe laburreko kanpo-finantzaketa lortzeko gehien erabiltzen den eragiketetako bat da. Finantza-erakunde batek enpresari aurreratuko dio bezeroei buruz dituen kredituen ordainketa, kanbio-letren bidez dokumentatuta. Bankuak kobratzen dituen interesen zenbatekoari deskontua deitzen zaio.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

2)

a) $KF = 50.000 + 42.000 = 92.000 \text{ €}$
 $Kau = 3,5 + 1 + 0,80 + 0,50 + 1,20 = 7 \text{ €/u}$

$$GE = GK \quad p \cdot Q = KF + Kau \cdot Q \quad 15 Q = 92.000 + 7 \cdot Q$$


$$Q = 92.000 / 8 = 11.500 \text{ unitate}$$

Esanahia:

11.500 euritako behar izanez gero, enpresari berdina zaio Malaysiako enpresari erosi edo bertan ekoiztea. 11.500 unitate baino gutxiago behar izanez gero, kanpoan erostea hobeto datorkio; aldiz, 11.500 unitate baino gehiago behar baditu, hobeto datorkio enpresan ekoiztea.

b)

Grafikoa:



c) $GE = p \cdot Q \quad GE = 15 \cdot 12.000 = 180.000 \text{ €}$
 $GK = KF + Kau \cdot Q \quad GK = 92.000 + 7 \cdot 12.000 = 176.000 \text{ €}$

Grafikoan ikus daitekeen bezala, hobe da enpresan ekoiztea, merkeago irteten zaiolako.

d) $GE = GK \quad p \cdot 10.000 = 92.000 + 7 \cdot 10.000$
 $p = 162.000 / 10.000 = 16,2 \text{ €}$

Unitateko 16,2 € izango da erosketaren gehieneko prezioa.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

3)

27.000 tapoi bi hilabetetan.

Q.eskaera = Hilabeteko kontsumoa $27.000/2 = 13.500$

Hornikuntza epea 5 egun

Segurtasun stocka = SS = 1.500 tapones

a) Eskaera puntua = segurtasun stocka + hornikuntza epeko kontsumoa = $1.500 + 2.250 = 3.750$ tapoi

Eguneko Kontsumoa, tapoiak = $27.000/60 = 450$
hornikuntza epeko kontsumoa = $450 \times 5 = 2.250$

b) Q.eskaera = 13.500

Bataz besteko stock honela kalkulatzen da:

Bataz besteko stocka, BBS = $Q_e/2 + SS = 13.500/2 + 1.500 = 8.250$ tapoi

c)

Errotazio Indizea = Urteko Kontsumoa / Bataz besteko stocka

Urteko Kontsumoa = $365 \times$ eguneko kontsumoa = $365 \times 450 = 164.250$

Bataz besteko stocka = 8.250


Errotazio indizea = $164.250/8.250 = 19,91$



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

d)

Biltegiaren mugimenduak



- e) Hornidura epea $(5+4) = 9$ egunekoa baldin bada, 4 egun gehigarri horietan $(4) \times (450) = 1.800$ unitate kontsumituko ditu eta enpresak ez du kopuru hori, segurtasun-stocka 1.500 unitatekoa da. Ondorioa: enpresak ezin du ekoizpen-prozesuarekin jarraitu eta stock hausturarik egongo zen, eta bezeroei egindako eskaeri ezin erantzun.



**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

4)

$$k = i + g + (i \times g) = 0,02 + 0,03 + (0,02 \times 0,03) = 0,05 \Rightarrow \% 5$$

ALPHA

-10.000 / 0 / 0 / 6.000 / 6.000 / 8.000

$$BE = \frac{0}{(1 + 0,05)} + \frac{0}{(1 + 0,05)^2} + \frac{6.000}{(1 + 0,05)^3} + \frac{6.000}{(1 + 0,05)^4} + \frac{8.000}{(1 + 0,05)^5} = 16.349$$

$$BEG = -A + BE = 6.349 > 0 \text{ Egingarria da.}$$

BETA

-20.000 / 3.000 / 4.000 / 5.000 / 6.000 / 8.000

$$BE = \frac{3.000}{(1 + 0,05)} + \frac{4.000}{(1 + 0,05)^2} + \frac{5.000}{(1 + 0,05)^3} + \frac{6.000}{(1 + 0,05)^4} + \frac{8.000}{(1 + 0,05)^5} = 21.967$$

$$BEG = -A + BE = 1.967 > 0 \text{ Egingarria da.}$$

GAMMA

-16.000 / 4.000 / 5.000 / 8.000 / 3.000 / 3.000

$$BE = \frac{4.000}{(1 + 0,05)} + \frac{5.000}{(1 + 0,05)^2} + \frac{8.000}{(1 + 0,05)^3} + \frac{3.000}{(1 + 0,05)^4} + \frac{3.000}{(1 + 0,05)^5} = 20.043$$

$$BEG = -A + BE = 4.043 > 0 \text{ Egingarria da.}$$

Balio eguneratu garbiaren arabera, ALPHA inbertsio-proiektua litzateke interesgarriena, hasierako inbertsioaren eta balio eguneratuaren arteko diferentziarik altuena duelako.




**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

BERRESKURATZE-EPEA EDO PAY-BACK-A

ALPHA


1. urtea	0 berreskuratu	10.000 falta dira
2. urtea	0 berreskuratu	10.000 falta dira
3. urtea	6.000 berreskuratu	4.000 falta dira



Epea = 3 urte eta 8 hilabete

BETA


1. urtea	3.000 berreskuratu	17.000 falta dira
2. urtea	4.000 berreskuratu	13.000 falta dira
3. urtea	5.000 berreskuratu	8.000 falta dira
4. urtea	6.000 berreskuratu	2.000 falta dira



Epea = 4 urte eta 3 hilabete

GAMMA

1. urtea	4.000 berreskuratu	12.000 falta dira
2. urtea	5.000 berreskuratu	7.000 falta dira



Epea = 2 urte eta 10,5 hilabete

PAY-BACK metodoaren arabera, GAMMA inbertsio-egitasmoa litzateke interesgarriena, berreskuratze-eperik laburrena duelako.

Berreskuratze-eparen metodoak dituen eragozpenak honako hauek dira:

- Berreskuratze-epeak, aurreko kutxa-fluxuei dagokienez, ez ditu kontuan hartzen zein unetan sortzen diren.
- Berreskuratze-epeak, ondorengo kutxa-fluxuei dagokienez, ez ditu kontuan hartzen.
- Urte desberdinetako moneta-unitateak batzen dira homogeenok balira bezala.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

5)

a) Diru-sarrerak:	- Merkantzien salmenta	95.000 €
	- Diru-sarrera finantzarioak	1.200 €
	- Lokal baten salmenta	10.000 €
		<hr/>
		106.200 €

Gastuak :	- Merkantzien erosketa	38.000 €
	- Soldatak eta lansariak	2.500 €
	- Finantza-gastuak	2.500 €
		<hr/>
		43.000 €

Emaitzak (Irabaziak): (106.200 – 43.000)= **63.200 €**

b)
Ordaindu behar diren zergak (63.200 x 0,3)= **18.960 €**

c)
Emaitza garbia 63.200 – 18.960= **44.240 €**

6)

$$n_a = \frac{\text{Urteko kontsumoa}}{\text{Lehengaien batez besteko stocka}} = \frac{50.000}{9.000} = 5,55 \text{ aldiz}$$

$$HAa = \frac{365}{n_a} = \frac{365}{5,55} = 65,7 \text{ egun}$$

$$n_f = \frac{\text{Urteko fabrikazioa}}{\text{fabrikatzen ari denaren batez bestekoa}} = \frac{290.000}{12.000} = 24,16 \text{ aldiz}$$

$$HAf = \frac{365}{n_f} = \frac{365}{24,16} = 15,10 \text{ egun}$$

$$n_v = \frac{\text{Urteko salmentak (kostua)}}{\text{produktu bukatuen batez besteko stocka}} = \frac{290.000}{6.000} = 48,33 \text{ aldiz}$$

$$HAV = \frac{365}{n_v} = \frac{365}{48,33} = 7,55 \text{ egun}$$

$$n_c = \frac{\text{Urteko salmentak (salmenta-prezioetan)}}{\text{Bezereoen batez besteko zorra}} = \frac{290.000 \cdot 1,9}{55,100} = 10 \text{ aldiz}$$



**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

$$HAc = \frac{365}{n_c} = \frac{365}{10} = 36,5 \text{ egun}$$

$$n_p = \frac{\text{Urteko erosketak}}{\text{Hornitzaileekiko batez besteko zorra}} = \frac{50.000}{32.000} = 1,56 \text{ aldiz}$$

$$HAp = \frac{365}{n_p} = \frac{365}{1,56} = 233,6 \text{ egun}$$

Bataz besteko heltze-aro ekonomikoa = HAa + HAF + HAv + HAc =

$$65,7 + 15,10 + 7,55 + 36,5 = 124,85 \text{ egun.}$$

124,85 egun igaro dira lehengaiak biltegian sartu direnetik haiekin fabrikatu, saldu eta amaierako produktua kobratu arte. Lehengaiak, batez beste, 65,7 egun ematen dituzte biltegian; fabrikazioak, batez beste, 15,10 egun behar ditu; amaierako produktua, batez beste, 7,55 egun egoten da biltegian saldu arte; eta, batez beste, bezeroek 36,5 egunera ordaintzen dute.

Bataz besteko heltze-aro finantziarioa = HAa + HAF + HAv + HAc – Hap =

65,7 + 15,10 + 7,55 + 36,5 – 233,6 = –108,75 egun. Enpresak heltze-aro finantzario negatiboa du, hau da, lehengaietan egiten duen inbertsioa ordaindu baino lehen berreskuratzen du kopuru hori, 108,75 egun lehenago hain zuzen.

Batez besteko heltze-aro ekonomikoa, lehengaiak biltegitratzen direnetik amaitutako produktua kobratu arte igarotzen diren egunak zenbatzen dira; batez besteko heltze-aro finantzarioan, aldiz, lehengaiak ordaintzen diren momentutik zenbat egun pasatzen diren amaitutako produktua kobratu arte. Kasu honetan, lehengaiak ordaindu baino lehenago kobratzen ditu amaitutako produktuak.

7) FIFO IRIZPIDEA

Data	Kontzeptua	sarrerak			irteerak			izakinak		
		q	p	balioa	q	p	balioa	q	p	balioa
05/02	Hasierako izakinak							4.000	4	16.000
05/09	Erosketa Txikiri	4.000	4,4	17.600				4.000 4.000	4 4,4	16.000 17.600
05/10	Erosketa Txikiri	8.000	4,6	36.800				4.000 4.000	4 4,4	16.000 17.600
05/13	Salmenta Ekosuperri				4.000 1.000	4 4,4	16.000 4.400	3.000 8.000	4,4 4,6	13.200 36.800



**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

05/20	Erosketa Oihalberri	5.000	5,6	28.000			3.000	4,4	13.200	
							8.000	4,6	36.800	
							5.000	5,6	28.000	
05/30	Salmenta Ekosuperri				3.000	4,4	13.200	4.000	4,6	18.400
					4.000	4,6	18.400	5.000	5,6	28.000

IZAKINEN BALIOA: 46.400 €

Mozkina = $9.000 \cdot 6 - ([4.000 \cdot 4,6] + [5.000 \cdot 5,6]) = 7.600 \text{ €}$

UNITATE KOPURUA: 9.000

IRIZPIDEA BPH

Data	Kontzeptua	sarrerak			irteerak			izakinak		
		q	p	balioa	q	p	balioa	q	p	balioa
05/02	Hasierako izakinak							4.000	4	16.000
05/09	ErosketaTxikiri	4.000	4,4	17.600				8.000	4,2	33.600
05/10	Erosketa Txikiri	8.000	4,6	36.800				16.000	4,4	70.400
05/13	Salmenta Ekosuperri				5.000	4,4	22.000	11.000	4,4	48.400
05/20	Erosketa Oihalberri	5.000	5,6	28.000				16.000	4,775	76.400
05/30	Samenta Ekosuperri				7.000	4,775	33.425	9.000	4,775	42.975

IZAKINEN BALIOA: 42.975 €

Mozkina = $9.000 (6 - 4,775) = 11.025 \text{ €}$

UNITATE KOPURUA: 9.000



**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

8)

a) EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA		PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	165.000	ONDARE GARBIA	177.700
IBILGETU MATERIALA	165.000	Erreserba legala	6.500
Altzariak	2.000	Kapital soziala	156.200
Garraio-elementuak	40.000	Ekitaldiko emaitzak	15.000
Eraikinak	135.000		
Makineria	4.000	PASIBO EZ-KORRONTEA (Epe luzeko zorrak)	12.000
Infor. Prozetko. Ekipamendua	3.000	Kreditu-erakundeekiko zorrak	10.000
I.M.A.M.	(- 19.000)	Epe luzeko ibilg hornitzaile	2.000
AKTIBO KORRONTEA	41.000	PASIBO KORRONTEA	16.300
IZAKINAK	7.000	Hartzekodun komertziala eta ordaint	16.300
Produktu bukatuak	7.000	Hornitzaileak	13.000
		Oga.Saila, hartzekoduna	1.500
ZORDUN KOMERTZIALAK eta KOBRAZKEKO BESTE	11.000	Gizarte Segurantzza, hartzekoduna	1.800
Bezeroak	11.000		
ERABILGARRIA			
Kutxa	1.000		
Bankua k/k	22.000		
AKTIBOA GUZTIRA	206.000	PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	206.000

Kapital sozialaren balioa = 156.200 €

b)

AKTIBO EZ-KORRONTEA 165.000		ONDARE GARBIA + PASIBO EZ-KORRONTEA 189.700
AKTIBO KORRONTEA 41.200	MANIOBRA-FONDOA	PASIBO KORRONTEA 16.300

Maniobra-fondoak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen du.

Maniobra-fondoak = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea

Maniobra-fondoak = 41.000 -16.300 = (177.700 + 12.00) – 165.000 = 24.700 €.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Emaitza positiboa da, eta horrek adierazten du enpresaren finantza-egoera egonkorra dela; epe luzeko finantzaketak aktibo ez-korrontea osorik eta aktibo korrontearen zati bat (zehazki, 24.700 €) finantzatzen ditu.

c)

$$\text{Ibilgetua} = \frac{\text{Aktibo ez-korrontea}}{\text{ondare garbia} + \text{pasibo ez-korrontea}} = \frac{165.000}{189.700} = 0,87$$

Aktibo ez-korrontea ondare garbiaren eta pasibo ez-korrontearen batura baino txikiagoa denez, ratioa 1 baino txikiagoa da; beraz, maniobra-fondoa positiboa da.

$$\text{Altxortegia} = \frac{\text{bihurgarria} + \text{erabilgarria}}{\text{pasibo korrontea}} = \frac{11.000 + 23.000}{16.300} = 2,09$$

Likidezia-arazoak saihesteko, ratioaren balioak 1etik gorakoa izan behar du; kasu honetan handiagoa denez, ez du likidezia-arazorik izango epe laburreko zorrei aurre egiteko. Bihurgarriarekin eta erabilgarriarekin pasibo guztiari aurre egiteko gai da.

$$\text{Likidezia} = \frac{\text{Aktibo korrontea}}{\text{Pasibo korrontea}} = \frac{41.000}{16.300} = 2,52$$

Ratio hau 1,5 eta 2 artean egotea da egokiena. Kasu honetan, handixeagoa da; beraz, epe laburreko zorrei aurre egin ahalko die arazorik gabe.

$$\text{Finantza-autonomia} = \frac{\text{fondo propioak}}{\text{pasibo korrontea} + \text{pasibo ez-korrontea}} = \frac{177.700}{16.300 + 12.000} = 6,28$$

Zenbat eta handiagoa izan ratio hau, enpresaren autonomia handiagoa da. Erreferentzia gisa, 0,8 eta 1,5 artean ondo legoke.

Enpresak erabiltzen duen besteen euro bakoitzeko, finantziaketa propioko 6,28 euro erabiliko ditu. Beraz, enpresa oso autonomoa dela esan dezakegu. Baina errentagarritasuna oso eskasa da.

$$\text{Zorpetzea} = \frac{\text{pasibo korrontea} + \text{pasibo ez-korrontea}}{\text{fondo propioak}} = \frac{16.300 + 12.000}{177.700} = 0,16$$

Ratio hori 0,4 eta 0,7 tartean dagoenean, jotzen da enpresa egoera onean dagoela; beraz esan dezakegu gutxi zorpetuta dagoela, kanpo-finantzaketako bideak oso gutxi erabiltzen ditu, eta fondo propioak askoz handiagoak dira.

Beraz, enpresaren egoera oso ona da, eta gehiago zorpetzea pentsa liteke, gehiago hazteko eta bere fondoeekin errentagarritasun handiagoa lortzeko.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

9)

a)

Jasandako BEZa = 165.000ren % 21 = 34.650 €

Jasanarazitako BEZa = 48.000ren % 21 = 10.080 €

BEZaren likidazioa : Jasanarazitako BEZa – Jasandako BEZa = 34.650 – 10.080 = 24.570 €
(ordaintzeko)

b)

BEZaren subjektu pasiboa ogasunarekiko betebeharrak duen pertsona da (fisikoa zein juridikoa). Ez da nahastu behar zergapekoarekin, azken horrek zerga ordaintzen duena baita, nahiz eta, kasu gehienetan, bi figurak bat datozen. BEZaren kasuan, zergapekoa azken kontsumitzailea da, eta subjektu pasiboa ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkion enpresa da. Kasu honetan, LURUMBA enpresa.

BEZak produkzioaren kate-maila guztiak zergapetzen ditu (enpresariak BEZa jasaten du egiten dituen erosketetan eta gero salmentetan jasanarazten du), eta prozedura hori azken kontsumitzailearekin bukatzen da, benetan azken horrek ordaintzen baitu.

Tarteko enpresariak egiten duten bakarra da jasanarazitako BEZa eta jasandako BEZaren arteko diferentzia Ogasunari ordaindu. Bestela esanda: BEZa, enpresari gehienentzat, ez da ez sarrera eta ez gastua, Ogasunarekiko duten zor edo kreditua baizik.

c)

Tasa oso murriztua: % 4. Premiazko ondasunak: barazkiak, esnea, ogia, fruta...

Tasa murriztua: % 10. Elikagaiak, oro har (aurreko lerroan aipatuak salbu); bidaiarien garraioa; etxebizitza; eta liburutegi, artxibategi, dokumentazio-zentro, museo, arte-galeria, eta abarreko sarrerak.

Tasa orokorra: % 21. Etxetresna elektrikoak, arropak, oinetakoak, brikolajea, tabakoa, edari alkoholduak, antzerkietarako, ikuskizunetarako, kontzertuetarako sarrerak, zine-areto eta diskotekarako sarrerak, telefonia mugikorreko zerbitzuak, eta ile-apaindegien zerbitzuak.